

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Jarduera sailkatuen espedientea, Arantzar poligonoan, 1. nabean ibilgailuen mantentze, karrozeria eta konpontze tailerra legezatzeko, Mikel Gotzon Cortés Gorrochategui jaunak sustatua**

Euskadiko Ingurumenaren Babes Orokorreko 3/1998 Legeko 58.2 artikuluan xedatutakoa betez, ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuta agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, 15 lan eguneko epean zehar, aipatu den jarduerari dagokion espedientea jende aurreko erakusketa aldiko izapideetan egongo da, ustezko kalteren bat dutenek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Espedientea kontsultatu ahal izango da astelehenetik ostiralera, Herriko plaza, z/g, 3. solairuko Hirigintza eta Ingurumen Arloko bulegoetan, 08:00-14:00 orduetegi barruan.

Laudio, 2016ko azaroaren 4a

*Alkatea*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*